

JUAN DE LA CIERVA 2025

DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:

Dirulaguntzen ezaugarriak:

Diru-laguntzen xedea doktore titulua duten gazteak txertatzea bultzatzea da, Espainiako I+G zentroetan doktorego ondoko ikerketa-prestakuntza egin dezaten.

500 laguntzatarako deialdia egin da doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. 9 plaza gordetzen dira % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatze eta beste 9 autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintzako ikerketa-zentro publikoetan, INIA (CSIC)-CCAA sisteman eta Ikerketa Zientifikoaren Estatuko Goi Kontseilua (CSIC) Estatu Agentzian integratuak, Nekazaritza eta Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Institutu Nazionalaren (INIA) bitartez.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek hiru urteko iraupena izango dute, eta epea zenbatzen hasiko da ikertzaileak I+G Zentroko lanpostura sartzen direnetik.

UPV/EHU-n hasiko diren onuradunek jasoko duten ordainsaria UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen negoziazio mahaiaren akordioan ezarritakoen arabera izango da, doktore-aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, 2021eko abenduaren 16an Gobernu Kontseiluak berretsi zuena.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Baldintzak deialdiko oinarrien 6. artikuluan kontsulta daitezke.

GARRANTZITSUA: Hautagaiek laguntza derrigor eskatu beharko dute doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabilitako zentroa ez den **beste I+G zentro batean** hasteko. Helburu horri begira, bereizi egin behar dira doktore titulua ematen duen ikastegia (unibertsitatea) eta doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunez jabetzera bideratutako ikerketa jardueren multzoa garatu denekoa.

6.1.b) artikulua ezarritakoaren inguruan, aipatu beharrean gaude UPV/EHUk ez duela mugikortasuna justifikatzeko memoriarik egingo.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUrekin eskaera aurkeztean denetik eta laguntzak irauten duen 3 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

GARRANTZITSUA:

Ikerketa Errektoreordetzak **ez** du balioztatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2025eko azaroaren 25etik hasita 2025eko abenduaren 10eko 14:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiek beren eskaera aurkeztu beharko dute behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balioztatzeko, **2025eko abenduaren 17ra arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiek aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean:
<https://aplicaciones.ciencia.gob.es/rus/editarRegistroPrevioUsuario.mec>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHU-ra adskribatu gura diren hautagaiek hurrengo dokumentazioa igorri beharko dute, **2025eko abenduaren 10era arte (hori ere barne)**, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVA](#)
- c. NAN-aren kopia
- d. Doktore tituluaren kopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen ereduan.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta teknikoa (5 urtekoa).

Ikerketa Errektoreordetzak **ez** du baliozkotuko epez kanpo jasotako dokumentazioa duen eskaerarik.

GARRANTZITSUA:

Behin sinatutako dokumentazioa posta elektronikoz (pre-postdoc.dgi@ehu.eus) bidali ondoren, honela aurkeztu beharko da:

Eskaerak UPV/EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira <https://egoitza.ehu.eus>, "ESKAERA" eremuan "JUAN DE LA CIERVA 2025" erreferentzia eta helburuko unitatea **Ikerketa Errektoreordetza – Giza Baliabideak (U02000381)** adieraziz.

Espainiako lurraldean bizi ez direla frogatzen duten hautagaiek bakarrik eman ahal izango dute eskuz idatzitako sinadura, eta jatorrizkoa postaz bidali beharko dute hurrengo helbidera:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketa Errektoreordetza (Giza Baliabideen Atala)
Errektoretza eraikina
Sarriena auzoa, z/g
48.940 Leioa (Bizkaia)

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioarekin (MCIU) kontaktua:

Eskatzaileek MCIU-ri kontsulta administratiboak zein informatikoak egin ahalko dizkiote formulario honen bidez:

https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad_contacte_con_nosotros/language/eu_ES

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva 2025" adierazita.

Informazio gehiago:

Klikatu -> [Esteka](#)